

# EL KARRIZ KETA

# UXUE BARKOS

“INDAR METAKETATIK  
HARAGO, POLITIKA  
EGITEKO BIDE BERRIA  
URRATZEN ARI GARA”



Iruñean otsailak gogorra izaten badaki, baina ezusteko goxotasunez hartu gaitu, elurra eta gero zer datorren iragarri bezala. Itxaroten dudan bitartean, Gaztelu Plazako Cafe Iruña ospetsuaren barratik eskuorri bat hartu dut. Bertan diote 1888an ireki zituela ateak eta hura izan zela Nafarroako hiriburuan argindarra erabili zuen lehena. Ispiluek biderkatu egiten dituzte lanpara handien distirak. Nafarroako egoeraz argi egingo didan solaskidearen zain nago, eta toki egokia dirudi horretarako. Lekuari begira ari naiz, atentzio handiarekin antza, ez bainaiz ohartu ere egin Uxue Barkos sartu denean. Ispiluetako baten ikusi dut, barra beraren bestaldean, bera ere zain dagoela.

**Bi lantokiren artean zabilta etengabe. Horietako batera oinez zoaz, eta bestera berriz hegazkinez...**

Bai, hala da, eta ez pentsa erraza denik antolatzea. Iruñeko Udaletxearen eta Madrilgo Kongresuaren artean joaten zaizkit asteak, eta bazuetan ez dut jakiten non utzi dudan zer.

**... politika egiteko eta politika ulertzeko oso modu desberdinak dira, gainera...**

Jakina, baina erabat osagarriak dira. Gure artean ez da oso normala beharbada, baina Europako toki askotan aurkitzen dituzu beren herriko alkate, alkatesa edo zinegotzi direnak eta aldi berean, ordezkaritza orokorragoko zereginetan diharduten politikariak. Nire kasuan behinik behin, politika ulertzeko dudan modua oso ongi islatzen du bikoiztasun honek. Parlamentu baten egiten dugun lanaren funtsa herritarren eguneroko bizitza hobetzea da, edo izan beharko luke, eta beraz herritarren kezkatatik zenbat eta hurbilago izan, orduan eta eraginkorragoak izango dira gure proposamenak eta jardun oro. Neurri baten behinik behin, gaur egun politikak bizi duen krisia urruntze progresiboari ere zor zaio. Politikan zer berri franko dugu.

**Gerta baitaiteke erraz-erraz politika profesionalak eliteak sortzea, herritarrengandik, boto-emaileengandik urruti kokatzen dena.**

Bere arazoetatik bai, behinik behin. Oso erraza da akats horretan erortzea eta udal politika errealtatearekin lotzen zaituen zibilbor-hestea dela iruditzen zait. Egunotan gertatu zaigun adibide batekin argi eta garbi ikusten da. Madrilgo Kongresuan aurkezteko asmoz, hipoteka ordaintzerik ez duten herritarrak babesteko proposamenak aztertzen ari gara, ordainean ematea bezalakoak. Txosten teknikoek arazoaren alde bat ematen

dute, eta garrantzitsua da horiek ezagutzea eta aintzat hartzea, baina kasu zehatzak ikusten dituztenean beste era batera jabetzen zara arazoez. Izen-deiturak dituzte txostenek islatzen dituzten egoera horiek, ez dira analisi hipotetikoak, egiazko dramak baizik. Udaletxera etortzen zaizu jendea eta azaltzen dizu etxea galdu duela, eta ondorioz ez duela eroldarik, eta horrek seme-alabak ezin eskolaratzea dakarrela. Hau ez da arazo tekniko bat: urgentzia soziala da, eta drama pertsonal ikaragarria. Bada, udal politikagintzan jarduteak ikuspegi aberatsagoa ematen. Jardun bakoitzak bere alde gozo eta mikatzak ditu, eta oro har, udal politikagintza askoz zailagoa dela esango nuke, baina aldi berean, aberatsagoa ere bada.

**Politikari gutxi esan dezakete proiektu berrietan hasieratik beretik parte hartu dutela. Zuk, ordea, ernamuetan zela inguratu zinen Nafarroa Bai bihurtuko zen proposamen horretara. Urte batzuk geroago, beste hasiera bat egokitu zaizu, oraingoan, Geroa Bai izenekoa.**

Baina guztiz desberdinak dira bi hasiera horiek. Geroa Bai, izan ere, aurreko proiektua gartzetik ez zegoela ikusita zabaldu genuen bidea da, eta aurrez landutakoaren jarraipena da. Nafarroa Bai erabat berria zen, azal eta mami, aukera berri bat eratu genuen eta Nafarroako abertzale orok argi ulertu zuten hura aurrez ez zegoen espazio bat betetzera zetorrela, aparteko indarrez, gainera.

Madrilgo Kongresuan nengoen, baina ETBrentzat kazetari-lana egiten. Nirekin lan egiten zuen kamerariak teletipo bat hartu zuen eta esan zidan: "Begira Uxue, zuk hainbestetan esan izan duzun hori egiten ari dira". Hainbeste nafarrek hainbestetan esan izan duguna, besterik gabe: gurean tresna nagusi bat falta izan da eta hura elkarlana zen. Nafarroa Bai sortzea erabaki zuten alderdiek, EAK, Aralarrek eta EAJ-k abiarazi zuten gure lurraldean egoera politikoa goitik behera aldatu duen proiektua, gero Batzarre elkartu zen eta dudarik gabe, ekarpen funtsezkoa egin dio Euskal Herriko politikagintzari. Ibilian ikasi dugu.

**Makina bat bihurgune izan duen bidea izan da, bide batez esanda...**

Jakina da, bai. Azken urtekoa zehatz-mehatz hemen azaltzeak luze joko luke. Nolanahi ere, bizi izan ditugun gora-behera horiek maiz ezkututzen dute nire iritziz erabat azpimarragarria den zerbait: bide horrek emaitzak eman ditu, eta garrantzitsuagoa dena, atzerabiderik ez duen politika-aroa ireki zuen Nafarroan, lubakien garaia gainditu egin duena. Nafarroako abertzaleak nor gara jadanik hemengo politikan, zatiketaren bidetik agortuta zegoen hazkundea ahalbidetu du, eragin mobilizatzaile eta eratzzaile handia izan duelako.

Prozesu honek izan dituen argiak eta itzalak ongi analizatu behar dira, behar diren ondorioak ateratzeko, baina atzera begiratzen dudanean badakizu zer ikusten dudanez? Bat: nafar abertzalerik



ez dela izan Madrilgo Kongresuan urtetan, eta orain bi eserleku ditugula. Eta bi: aktibatu dugun jende andanaren artean, abertzale ez diren asko eta asko daudela, ezkerreko proiektu progresista baten ordezkatura eta eroso sentitzen direnak. Hau erabat berria da Nafarroan. Orain arte gure mapa politikoan harresi handiak zeuden, iraganezinak ziruditen bi munduak bereizten zituztenak eta urteetan halako etsipen modukoa eragin zuena gure artean. Bada NB-k hasitako prozesuari esker, apurtu egin zen egoera hori, eta behin betirako, gainera. GB orduko txinpartaren hauspoa izateko helburuarekin sortu zen, eta emaitzak ikusita, horretan jarduteko bide aski zabala dago oraindik.

**Harresiak kanoikada bota daitezke, baina baita zimenduak apurka-apurka higatuta ere.**

Eta gure iritziz, bigarren bidetik jo behar du Nafarroako abertzaletasunak. 30 urtetik gora eman ditugu kanoiak erabiliz elkarren kontra eta horrela ez da aurrerapauso esanguratsurik lortu, eta are gehigo, arlo askotan atzerago kokatu gaitu estrategia horrek, besteak beste UPNren politika indartu egin duelako. NB-rekin hasieran eta GB-rekin orain, beste bideak emaitza argiak eman dituela erakutsi dugu eta beraz hasitakoari jarraipena eman behar zaiola uste dut.

**Prozesuan, baina, bidaideak galdu egin dituzue. Koalizioa eratzea erabaki zuten lau alderdietatik bakarrak eutsi dio apustuari. Zeuri iritziz, GB aukeratu duten boto-emaleek zeren aldeko bozka agertu nahi izan dute?**

Osagaien ginetik dagoen proiektuari, hots, siglak baino askoz garrantzitsuagoa den zerbaiti: egoera politikoa ulertzeko, zuzentzeko eta aldatzeko proposamen desberdin bati. Gure hasierako intuizioa berretsi egin da, uste baikenuen indarren metaketak bolumena ez ezik, izate desberdindua ere emango zigula, hau da, zerbait benetan berria eratzeko aukera ematen zuela horrela lan egiteak. Joan den urteko azaroko emaitzak ikustean, huraxe izan zen nire lehen pentsamendua. Proiektuek hegoak dauzkate, aldatu egiten dira, edo nahiago baduzu, sortu den egoera berrira egokitu egiten dira, baina oinarri-oinarritzko proposamenari, geure balio erantsiari, uko egin gabe.

Arrisku handia onartu genuen bere momentuan, alderdi sortzaileek beste bide bat hartzea erabaki zutenean. Bistakoa denez, ez zait damutzen, baina oso prozesu zaila eta batzuetan mingarria ere izan da. Irailaren 20an izenik eta logotiporik gabe geunden, eta bi hilabete geroago, Madrilgo Kongresurako aulki bat eman ziguten boto-emaleek.

**Nora doa Nafarroa?**

Bere bila ari da, denok ari gara nahi dugun Nafarroaren bila. Guk geure proiektuarekin erantzun-molde zehatz bat aurkeztu dugu, baina oro har aztertuta, gaur egun erakundeetan dauden agintari politikoak anbizioerik gabe ari direla ematen du. Amore emanda bezala, esango nuke.

Azken urte hauetan aurrerapauso sendoak eman ditugu orain arte bizi izan dugun salbuespen-egoera gainditzeko, baina oraindik defizit politiko sakona dugu zuzentzeko.

**Zertan da defizit hori?**

Demokraziatik oso gutxi duten azpi-jokoaren bitartez eraiki du Nafarroan bere nagusitasuna muturreko eskuinak: gizartearen zati garrantzitsu bat utzi du bazterrean politikoki, beste biderik ez zuelako boterean iraunarazteko. UPN-k oso trebe jokatu du ehunekoak maneiatzen: indar abertzaleak baztertu egin ditu (eta abertzaleok bazterretik baino ez diogu erantzun) eta horri esker %30ren ordezkari izanik %51eko nagusitasunarekin ezarri du bere eredia. NB erantzun estrategikoa izan zen salbuespen-egoera hau iraularazteko, eta GB horren oinordekoa da.

**“Zatiketarik zatiketara, erabateko batasuna lortu arte”, pentsa lezake norbaitek...**

Erantzukizun handia dugu horretan, eta ezin dugu handik oin-puntatan pasa: 2007. urtean Nafarroako bigarren indarra izan ginen, eta handik lau urtera eredia zalantzan jarri eta jarraibiderik ez ematea erabaki zuten alderdi batzuek.

Apustuak egin dira ondoren batasunaren saskia beste zume batzuekin osatzeko, eta jakina denez, den-denak zilegi dira. Nolanahi ere, GB proiektuarekin aurrera egiteko arrazoi nagusia izan zen batasuna eta erabateko berdintasun uniformatzailea bi abiapuntu arras desberdinak direla defenditzea. Gure iritziz, Nafarroako abertzaleok erakutsi dugu elkarlan-eredu propioak garatuta ezarritako

emaitzetara hurbil gaitzkeela. Deabruaren pare jarri den “transbertsalitate” kontzeptuak gurean bide luzea du egiteke, eta besteak beste, proiektu sozial berria eraikitzeke balio duela erakutsi dugu.

**Nora begiratzen du GB-k elkarlanaren sarea garatzen jarraitzeko?**

Geure proiektuaren funtsa onartuz, bidea edo bidearen zati bat gurekin batera egin nahi duten indar progresisten aldera. Ezker abertzale ofizialarekin posible da elkarlana? Dударik gabe, eta seguru nago horretarako momentuak iritsiko direla, zeregin handia dugulako elkarren eskutik. Baina horretarako malgutasuna behar da, eta behar bada, horixe falta izan da orain arte. Geure gizartearen araberrako mapa politikoa ez da sinplea, oso konplexua baizik, eta horretan jarduteko elkarlanaren gaitasuna garatu behar dugu.

**“ERREFERENTZIARIK GABE ARI GARA. KONFIANTZARIK EZA NAGUSITU DA GURE ARTEAN”**

**Aldi baterako krisia zelakoan, atertu zain egon gara denbora-tarte batez, baina orain ikusi dugu bizi dugun krisi egoerak luze joko duela. Politika ez den beste bideren batetik joko du gizarteak erantzun eske?**

Ez dut uste. Askotan entzuten dut jendea politikatik aldendu egin dela, baina nire iritziz, alderantziz gertatu da: politikaren garrantziaz ohartu da jendea, eta gertatzen ari denari erantzun politiko sendoekin erantzun behar diogulako. Politika eta alderdi politikoak ez dira gauza bera, eta herritarren mesfidantza nagusiki egitura politikoetara zuzendu dela esango nuke. Eta, bide batez, esanda, ez nau harritzen batere.

Politikak gizartearen beharrianak estaltzeko bidea izaten jarraitzen du, baina orain oso agerian geratu da erabateko transformazioa behar duela gure eredu honek, eta politika egiteko modua eta tresnak ere barruan hartu behar dituela eraldaketa horrek.



**Lidergo politikorik gabe dihardugula entzuten duzunean, zer iritzi duzu?**

Neurri handi baten, ados nago. Gizartearen beharrietatik deskonektatu diren egitura politikoak daude geure erakundeetan, eta ondorioz, noraezean ari dira, Europatik datozen neurri erabat suntsitzaile eta harraparien aurrean men egitera mugatzen baita beren jarduna. Burua makurtuz erantzuten diogu ekaitzari. Eredua kolapsora iritsi denean, shock egoeran geratu gara, erreakzio-natzeko gaitasunik gabe. Arazo berriei erantzun zahar eta agortuekin erantzuten ari gaitzaizkie eta beldurrak anesthesiatu duen gizartean erreakzio oso ahula ikusten ari gara. Zentzu horretan, bada, lidergoan hutsune nabarmenak ditugu, baina politikan ez ezik, maila intelektualean ere erreferentziak behar ditugu. Ez naiz inozoa: honek epe luzerako lan bat jartzen digu eta gaur egungo arazoan aurrean erantzun bizkorrak eta eraginkorrak behar ditugu. Hori horrela izanik ere, gogoeta egiteari uko egiten badiogu, galduta gaude: erreferentzia berriak eraiki behar ditugu.

**Esatetik egitera pasaz gero, nondik heldu matazari?**

Egiazko eztabaidatik, hau da, geure ereduaren erdigunean kokatu behar ditugun koordenuak finkatzetik. Zein dira egoera honetan babestu behar ditugun altxorrik? Erantzuna ez dago maila politikoan soilik, eta gauza izan behar duzu gizartearen parte hartzea egituratzeko lehentasunak definitzeko, behetik gorako jariora bermatzeko. Ongizatearen gizartea kuestionatzen ari den garai honetan, non jarri behar ditugu ahalegin eta baliabideak? Hezkuntza eta osasungintza unibertsala, publiko eta kalitatezkoa bermatzen, eta dependenziaren beharrietan estaldura egokian, nire iritziz.

**Aipatu dituzun hiruak dira, hain justu ere, defizitaren jo-puntuari jarri diren lehen esparruak. Nora garamatzate murrizketek?**

Gezur handi bat irauaraztera konponbiderik jartzen ez badiogu. Sinistu dugu, beldurrak eraginda, beste biderik ez dagoela eta ezinbestean eten egin behar dela urte askotan eta jende askoren lanari esker lortu dugun ongizatearen estatua katea. Bistan denez, oso zorrotzak izan behar duzu guztiok gastuaren kontrolean, baina oreka aldarrikatzen denean, bi alderen artekoa dela ahaztu

egiten dugu. Hau da: ezin dugu daukaguna baino gehiago gastatu (nahiz eta hori bera dudan jartze-ko modukoa den, nire iritziz), baina "daukaguna" ez da kontzeptu mugiezina, ezta gutxiagorik ere, eta unean uneko lehentasunen arabera ezarri egin behar da.

Lidergo intelektual eta politikoaren gabeziak eztabaida honen ahulezian islatzen dira. Erabakiak hartu behar digu eta horretarako sakoneko errebi-sioa egin behar dugu, lehentasun, aukera eta baliabideak ezartzeko.

**Arazo globalaren aurrean tokian tokiko erantzunak emanez zer lortu dezakegu?**

Geure errealtateara egokitutako proiektu propioa eratzea. Helburu sozialik gabeko globalizazioak nora eramán gaituen ikusi eta gero, beste ereduaren bat garatzeko aukera dugu orain, geure indarretan sakonduz eta zuzendu beharreko akatsei helduz, baina beti ere geuk ezarritako lehentasunetatik begiak kendu gabe. Bere garaian industriaren alde egindako apustuak emaitza onak eman ditu, eta sektore produktiboek geure Barne-Produktu Gordinean duten pisuari esker, egoera larria izanik ere, eusten ari gaitzaizkie nola-baiten babes sozialari. Eredu bakarreko Europako aginduen aurrean, erantzun lokal positiboak emateko bidea dugu.

**Nola orekatu daiteke jardun politikoaren irispidea, alde batetik eredu-aldaketaren auziari helduz eta bestetik hartu behar diren urgentziako neurriak atzeratu gabe?**

Ausardiaz jokatu behar dugu, auskarkerian erori gabe. Erantzun behar dugu neurri zehatzekin, baina galdera egokiak eginez norantz goazen definitzeko. Langabeziaren datuak ikusteak errealtatearen ispiluaren aurrean jartzen zaitu, batzuek iragarri zuten ekaitza perfektuaren aurrean, eta gure erantzukizuna onartu egin behar dugu. Horrek ez du esan nahi edozein neurri balezkoa denik, edozein azpijoko onartu behar dugunik Defizitaren Aldarean gurtzeko. Honaino ekarri gaituen ereduak eztanda egin du, eta ordeko eredurik gabe harrapatu gaitu. Horrek, baina, ez du esan nahi irtenbiderik ez dagoenik, baina fede gutxi zor diot nik beldurrean oinarritzen den balizko irtenbideari.

**Behin eta berriro aipatzen ari zara beldurra. Zein funtzio betetzen du gaur egungo krisian?**

Beso bat mozten uzteko prest gaude, hori egin ezean burua bera galtzeko arriskua dugula sinestarazi digutelako. Beldurrak paralizatu egiten du, beldurrak atzera egitea derrigorrezkoa dela iradokitzen du, beldurrak isildu egiten du eskubide sozialen aldarria, hemen eta mundu osoan. Beldurrengatik baino ezin da esplikatzen ongizatearen gizartearen kontrako etengabeko eraso hau. Urteetan lortutako eskubide sozialengatik zigortu egiten gaituzte merkatuek, eta bide batez, mezu argia helarazten diete besteak beste hazten ari diren herrialde emergentei: "eskubideen gizartea ez da bideragarria jadanik, begira zer gertatzen den herri garatuetan eskubide unibertsalak babestu izanagatik". Garapen-eredu berri elbarria justifikatzen da beldurrari esker.

**"ETAREN AMAIERAK EZ DU EKARRI ASKOK USTE ZUTEN DIZTIRA"**

**ETA-k armak uzteko erabakia iragarri baino egun batzuk lehenago Donostian izan zinen, Aieteko Bakearen Etxean. Nafarroak izan al du prozesu honetan zure iritziz behar zuen tokia?**

Ez, inolaz ere ez. UPNri ez zaio komeni eszenario berria, bere jardun politikoaren zutabe nagusia ETak emandako aitzakia merkea izan baita. Hura gabe, birkokatu egin behar du bere proposamen sozial eta politikoa, eta hori ez zaio batere gustagarria gertatuko, nik uste. Orain arteko itsukeria jarraitzeko aukerak agortzen ari zaizko Nafarroako eskuinari. Madrilgo Kongresuko gehiengoak otsaila bukaeran onartutako mozioan gauzak aldatzen ari direla nabarmen geratu da eta UPN-k ulertu egin behar du mezu hori, mugitzen hastekoa. Orain arteko jarrera aldatzeko argi eta garbi esan dute Espainiako indar politikoek eurek ere, eta hori mezu garbia da EAEko eta Nafarroako gobernuztat. Amaiur legez kanpo uzteko UpyD-k egindako proposamenari muturrekoa emanez, besteak beste, hemendik aurrerakoa kudeatzeko orain arteko jokabideak ez direla onargarriak erakutsi da.



RESPUESTAS FORMATO TWITTER

Sobre la globalización y la visión local del mundo **#cuandosalgodena Navarra**:

Sigo aprendiendo para traer, y sigo empeñada en llevar para aportar.

Sobre cómo ves tu futuro: **#demayorvovayer**:

Formal, formal con las cosas serias, como la salud.

Sobre tus distracciones: **#megustaperdereltiempo**:

Cualquier cosa que me haga disfrutar simplemente viéndola pasar.

Sobre tus motivaciones: **#cadadíameponelaspilas**:

La mirada de mi hijo Xabier.

Sobre tus referencias: **#elmejorconsejoquemehandado**:

Serás lo que hagas.

Sobre tus maestros en política: **#cuandodudomeacuerdode**:

Ufff

Sobre lo que te queda por hacer: **#demañananopasa**:

Me quedan cosas como para mañana, pasado, al otro. . .

### Zer datorkigu hurrengo bihurgunean?

Ez dakit esaten, gertakari zehatzak aurre-satea ez baita nire gustuko lana. Gure aurrean duguna lan handia eta garrantzitsua da: Bakea eraiki behar dugu, edo nahiago bada, bakegintzan jarraitu behar dugu, zabaldu den aukera berriari txinpartak ateraz. Une erabakigarria da hau, luzaz itxaron eta amets egin dugu egoera berriarekin, eta orain ahalegin handia egin behar dugu guztiok sortu den aukeraren mailan egoteko. Zer datorren? Auskalo. Ez daukagu aurrez idatzitako errezetarik, batzuk, alde baten nahiz bestean, kontrakoa esaten eta sinestarazten ahalegintzen ari badira ere. Arriskatzeko unea iritsi da, batzuei etekin handiak eman dizkien erosokeriatik atera egin behar dugu gizarteak hala eskatzen edo exijitzen duelako.

**Aurrera egin, baina tentuz. Oraingo egoera bizkorregi gainditu nahi izateko arriskua ikusten duzu?**

Batzuek egintzat eman nahi izateagatik, beste batzuek deus ere ez dela aldatu aldarrikatzeagatik, baliteke funtsean bai, bizkorregi ibili nahi izatea eta hori, nire ustez, ez da komenigarria. Herri honek bizi izan duen dramak zauriak utzi ditu guztiongan eta lan sakon eta funtsezkoa egitea dagokigu orain, eraiki behar dugun dena delakoa egiazkoa izango bada. Prozesu honek bere erritmoak behar ditu, eta horiek behartu nahi izateak ez garamatza inora, ez bada frustrazioa.

### Zein dira eginkizun dagoen bidearen oinarritzko koordinatuak?

Biolentzia behin betirako baztertzea nahitaezkoa da, erabatekoa eta baldintzarik gabeko erabakia izatea, alegia. Behin hori bermatuta, biktima guztientzako memoria historikoa eta lurraldetasunari begira, behetik gorako prozesua. Bi ardatz horietan jardun behar dugu prozesua benetan sen-

dotzea nahi badugu, demokratikoki zuzena izan dadin. Prozesuak gardena eta irekia izan behar du. Horrexegatik iruditen zait, hain zuzen ere, ezinbestekoa dela erritmoak onartzea, alde bateko nahiz bestekoen urgentziek bide laburrago baino ahulagoak ekar ditzaketelako.

### Zer dagokigu herritarroi prozesu honetan?

Euskal gizarteak urtetan egindako lanaren emaitza da ETArek erabakia. ETak gizarteari erantzun dio, nahi baino beranduago bada ere, eta herritarrek ezin dute oraingo prozesuaren gidaritza begien bistatik galdu. Kontrola eta exijentzia dagozkie herritarrei, eta bi zentzutan gauzatu behar dute, gainera: ETari eta alderdi politikoi begira.

**Behin betiko bakearen atarian gaudela esanagatik, ez da lortu gizartean espero zitekeen ilusio edo ...**

Ilusioa bai, nik uste. Behar bada falta izan zaiguna beste egoera batzuetan sumatu genuen grina hura izan da. Nik gogoratzen ditut beste une batzuk, lehenago bizi izandakoak, bakea ukitu edo egiten ari ginela sentiarazi gintuztenak. Oraingoan, ordea, nekea nabaritzen dugu, kapitulu lazgarri hau behin betiko gainditu beharra dudan jartzen ez duena, baina lehentasunen mailan bere tokia nabarmen aldatu da. Hau ere kontuan hartzeko irakasbidea da, nire ustez: amaiera ez da izango alde batekoek nahiz bestaldekoek uste zuten bezain distiratsua, ezta gutxiagorik ere. Eferbeszentziarik gabea izango dela ematen du.

### Espero genuen momentua oso momentu txarrean iritsi da?

Jendearen lehentasunak aztertuta bai, du-darik gabe. Unea iritsi da iritsi behar zelako, horretarako aurrez eta hamaika tokitatik egindako lanari esker baldintza egokiak sortu direlako.



Atentzio handiarekin entzuten ditu galderak, eta tentu handiz aukeratzen ditu hitzak. Nabari zaio kazetari-eskola. Urteetan ni orain nagoen tokian egona da Uxue Barkos, kameraren aurrean eta atzean. Solasaldia zuzentzeko duen abilitadea ez da bat-batekoa, ongi ikasitako langintzaren emaitza baizik.



**“ARRISKATZEAK MEREZI  
ZUELA PENTSATU NUEN, ETA  
ARRISKATU EGIN NUEN”**

**Egoera politiko, sozial eta ekonomiko oso interesgarria da oraingo hau, politikatik nahiz kazetaritzatik aztertuta. Non sentitzen zara erosoago?**

Bietan, egia esan. Orain politikan ari naiz, hauxe da nire lana, baina ez diot utzi kazetari izateari, ezta utziko ere. Guretzat ez dago eszedentzia mentalik. Egun batzuetan kamera hartu eta korrika aterako nintzateke erreportajeren bat egitera, diozun moduan, bizi garen testuinguru hau oso interesgarria baita periodistikoki ere. Oraingo ez da posible, baina nire bizitza profesionalaren hurrengo etapa kazetaritzarekin lotutakoa izango da.

**Beraz, joan-etorriko bide politikoan ari zara?**

Horrelaxe hartu nuen hasieratik beretik, eta hori da nire asmoa, bai. Joan den azaroko hauteskundeak baino lehen momentua iristen ari zela ematen zuen, baina Geroa Bai-k erakutsi dit nire bide hau ez dela oraindik amaitu.

**Bizitza politikoak, baina, orbanak uzten ditu beti...**

Jakina, ez zait hori ezkututzen. Nolanahi ere, nik uste dut kazetariok lan politiko egiten dugula etengabe, gure zereginaren parte delako. Emakumeen kontrako biolentzia salatzen dugunean, kronika ekonomiko edo politikoa egiten dugunean... horrek guztiak zerikusi handia du politikarekin. Maiz nahastu egiten dira politika eta alderdikeriak.

**Nafarroa Bai-ren eskaria onartu zenuenean honetaz koiziente zinen hala gerora egingdako gogoeta da?**

Egia esatea nahi baduzu, proiektu politikoa azaldu eta nire izena horretarako eskatu zidate-nean, ez nuen gehiegi pentsatu. Urteak neramatzan gisa honetako proiektu politiko baten beharraz hitz egiten aukera nuen guztietan eta beraz, behin eskaintza eginda, baiezkoa erantzutea erabat naturala izan zen. Orduan Madrilgo Kongresuan ari nintzen lanean, eta harakoa zen proposamena. Nolabait esateko, nik abantaila horrekin jokatzeko nuela pentsatu nuen: tokia ezagutzen nuen, eszenatoki honetan eroso mugitzen nintzen eta horrek lagunduko zidala pentsatu nuen. Eta hala izan da, nik uste.

**Damutu zaizu inoiz?**

Ez, damutu ez, baina ez da izan eman leza-keen bezain erraza. Politikari nire bizitza profesionalaren tarte bat eskaini behar niola pentsatu nuen, nire erantzukizuna ere bazela, nolabait esanda. Aukera nuen, eragozpen larririk ez, eta beharbada niretzat beste askorentzat baino errazagoa izango zelakoan, gehiegi pentsatu gabe egin nuen jauzi hori. Beste hainbatekin batera zerrenda batzuetan egotetik aste betera hautagaia izatera pasa nintzen, eta handik aurrera dena oso bizkor joan zen... Arriskatu egin behar zela uste nuen, eta arriskatu egin nuen. Merezki zuelakoan, eta orain esan dezaket merezi izan duela.

**Zer eman dizu?**

Une zoragarri asko, eta une gogor batzuk ere bai, noski. Bizitza halakoxea da. Onenak Nafarroa Bai-ren lehen hauteskundeak, orduko ilusioa, orduko poza. Eta baita Geroa Bai-ren eserlekua ere, joan den azaroaren 20an. Une pertsonala orduan oso berezia zen, sentimendu guztiak puri-puritan nituen eta orduko malkoak benetan gozoak izan ziren niretzat. Une gogorrek ez ditut ahaztu, koalizioa apurtu zenekoa, adibidez, minbizia diagnostikatzearekin bateratsu etorri zena...

Asko aldatu du nire bizitza erabaki horrek, baina gehiago aldatu dute bizitzaren beraren zirkunstantziek. NB-rekin hasi nintzenean, “politikoki formarik gabekoa” nintzen, hau da, definizio argirik eta publikorik gabekoa. Gaur egun, ordea,

forma zehatz bat du nire jardun politikoak, eta horrek ertzak sortzen ditu. Zauriak ere bai, kasu batzuetan.

Itzuli-inguruka ibili naiz solasaldian zehar. Aitortu egin behar dut kosta egiten zaidala gaia mahaigainera ateratzea, kanpoko begiraleontzat itxita dagoen ate pribatu bat zabaltzea edo, izan daitekeelako. Baina irribarre batez erantzun dio Uxuek nire kezkarri, eta txano grisaren atzealdetik ateratzen zaion ilea ukitzen ari dela, minbiziari buruz hitz egiten hasi zait. Kazetari trakets honi beste lezio bat eman dio, goiz honetako hamaikagarrena: galdera deserosorik ez dago zer erantzuten dakienarentzat.

**Bizitzan lehentasunak birkokatzeko balio omen du gaixotasun honek...**

Esan ezazu beldurrik gabe: minbizia du ize-na, eta bai, izugarriko esperientzia da. Minbizia entzun eta heriotzaren ispiluaren aurrean jartzen zara nahitaez: gure gizarte aberats honetan halaxe da. Ikaragarriko tragoa da, zeure beldurrei aurrez aurre begiratzera behartzen zaituelako, ihes egiteko aukerarik eman gabe. Nik semea nuen buruan etengabe, nigan baino, harengan pentsatu dut nik. Egun eta gau asko uzten dizkizu minbiziak zure bizitza alderik alde zeharkatzeko.

Edozein modutan, ez dut uste lehentasunak aldatu egin dizkidanik, lehen ere garbi bainuen zer den garrantzitsua eta zer den akzesorioa, baina nire lehentasunei behar duten atentzioarekin heldu egin behar diedala garbiago ikusten dut orain. Ikasten ari naiz, ez pentsa, oso zaila baita norberaren izaeran oso errotuta dauden ohiturak aldatzea.

**Eguneroko txikikerietatik distantzia apur bat hartuta, adibidez?**

Adibidez. Lehen denbora-kantitatearekin egiten ez nuena denboraren kalitatearekin ordez-

katzen nuela esaten nion nire buruari, baina hori gezur handi bat dela ikasi dut. Orduak eskaini behar dizkiezu zure lehentasunei, nire kasuan, nire semeari. Esatetik egitera jauzi handia dago eta ez da egunero asmatzen, baina orain lehen baino kozianteagoa naiz horretaz. Gauzak lasaiago hartu behar ditut, eta horretan ari naiz ikasten, nahiz eta nire medikuek askotan ez duten sinisten! Beldurrak asko laguntzen du diziplina hartzen.

**Zeure bizitzaren alde publikoak errazago edo zailago jarri dizu hori guztia?**

Ez dakit esaten. Nire bizitza pertsonala nahitaez ezaguna da jendearentzat, esparru publikoa baita nire langintza, baina horrek ez nau gehiegi

arduratzen. Oso bestelakoa da nire bizitza pribatua, neure-neurea dena, eta hori etxe barrurako gordetzen dut. Horrelaxe behar dela uste dut.

**Okerrena pasa da jadanik?**

Nork esan dezake horrelakorik erabateko segurtasunez? Inor ez. Gauzak datozen bezala hartzen ikasten ari naiz, bizitzari duen onena ateratzen saiatzen ari naiz une oro. Ikaragarriko zortea izan dut, orain arte intentsitate handiarekin bizitzeko aukera izan dut, maite dudana eginez. Datorrena hobe izango ote den ez dakit, zer espero zaigun aurrez jakitea ez zaigulako emana, baina edozein modutan, aldarte onarekin harrapatzea nahi nuke.

**Las y los navarros no pueden ver los canales de ETB con normalidad. Parece algo difícil de explicar en un mundo en el que toda la información es accesible por todos desde cualquier lugar...**

Cierto, es difícil de explicar desde el sentido común, desde el afán de trabajar por los intereses generales de una sociedad, o difícil de explicar desde presupuestos de desarrollo cultural. Ahora bien, desde el ánimo que mueve a nuestros gobernantes de UPN te aseguro que no es en absoluto difícil de explicar. La negación del ser vasco de Navarra, y por lo tanto cualquier herramienta que incida en ello, es elemento para su supervivencia al frente de las principales instituciones de la Comunidad Foral.

**Tras siete años de vida política, ¿cómo crees que han cambiado, si lo han hecho, las relaciones institucionales entre Nafarroa y la Comunidad Autónoma del País Vasco? Los tandem UPN- PSN en Iruñea y PSE-PP en Vitoria ¿han creado puentes o han rotos amarras?**

Han sido absolutamente baldíos en este terreno: no veo que hayan superado ninguno de los oportunos, meditados y bien medidos recelos que desde las instituciones de UPN se han venido fortaleciendo durante estos años. Tampoco creo que hayan conseguido fortalecer más la estrategia.

**500 años después, “Incorporación al Reino de Castilla” es la definición con la que desde Madrid se sigue acompañando el programa de celebraciones para 2012.**

Y con algunos elementos absolutamente kafkianos en la “ronda” de celebraciones que han ideado -por no decir perpetrado- desde las instituciones navarras. Imagínate que proponen una ruta turística centrada en la conquista de Navarra, y sin el más mínimo sonrojo la llaman así: Ruta de la Conquista... Me queda la duda de si serán capaces de incluir actividades tipo “Emule al Duque de Alba en su paso por Navarra”... En fin, todo un despropósito, desternillante si no fuera porque se refiere a aquellos que en estos momentos gobiernan nuestra sociedad.

